


emakumeak eta artisau meatzaritza

Trazabilitate-sistemen eragina Kongoko Errepublika
Demokratikoko Rubaya/Masisi erkidegoetan



GATAZKARIK
GABEKO
TEKNOLOGIA





aurkibidea

Argitaratzaileen oharra	5
Eskerrak	6
Siglak	7
Laburpen exekutiboa	8
1. Sarrera	11
2. Ikerketaren helburuak	12
3. Erabilitako metodologia	13
4. Ikerketaren emaitzak	13
4.1. Trazabilitate sistemaren eragin sozioekonomikoa	14
4.2. Meatze ustiapena Rubayan	20
4.3. Emakumeek meatzean duten eginkizuna	22
5. Ondorioak	24
6. Gomendioak	25
I. Eranskina. Indarreko trazabilitate ziurtagiriak	27

Jatorrizko izenburua:

FEMMES DANS LES MINES. Les Impacts du Système de Traçabilité dans les communautés Rubaya / Masisi, en République démocratique du Congo.

© **ALBOAN** Fundazioa

© Synergie des Femmes pour les Victimes des Violences Sexuelles

Egilea: Justine Masika

Argitaratzaileak: Alicia Aleman eta Guillermo Otano

Data: 2017ko iraila

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimaketa: Gráficas Ingugom, S.L.

Lege-gordailua: BI-1846-2017

Gaztelaniazko itzulpena: Aeiou Traductores



Argitaratzaileen oharra

Txosten hau, 2016ko ekainean *Synergie des Femmes pour les Victimes des Violences Sexuelles (SFVS)*, Kongoko Errepublika Demokratikoko (aurrerantzean KED) ekialdeko emakumeen elkar-teak, **ALBOAN Fundazioak** eskatuta (Euskadiko eta Nafarroako jesuiten GKE), 2016ko ekainean egindako ikerketa baten emaitza da. Bi erakundeen arteko lankidetzak **ALBOAN** fundazioak *Gatazkarik gabeko teknologia izeneko* kanpainaren barruan kokatzen da, eta xedea da gatazka-eremuetatik eta KEDko ekialdeko mugatik datozen mineralen legez kontrako erauzketa eta komertzializazioaren eta teknologiaren ekoizpen eta kontsumoaren artean dagoen lotura apurtzea.

Gure eguneroko bizitzan erabiltzen ditugun tresna elektronikoko askok (mugikorrak, tabletak, ordenagailuak, bateriak eta abar), mineralak dituzte, hala nola koltana, eztainua, wolframioa eta urrea, eta horiek gabe ezin dira ibili guk ezagutzen ditugun moduan. Mineral horiek gure eskuetara produktu teknologiko gisa heldu arte egiten duten bidean giza eskubideen indarkeria mota guztiak gertatzen dira, erauzten dituzten lekuetan bereziki: haurren esplotazioa, emakumeen kontrako indarkeria sistematikoa, helduek erdi-esklabotasunean lan egitea eta abar.

Begien bistakoa da mineral hauen komertzializazioa finantzazio-iturri boteretsua dela zenbait talde ustel eta armatuentzat, eta bertako erkidegoen garapena eragozten dutela. Egoera horrekin amaitzeko zenbait ekimen sortu dira, industria elektronikoen "gatazkan dauden mineralen" hornidura arduratsua sustatzeko batik bat.

Nazioarteko esparruan, Ekonomia Lankidetzak Garapenerako Antolakundearen (aurrerantzean, ELGA) Nahitaezko Eginbidearen Gida nahitaezko erreferentzia bat da, izan ere, teknologia-enpresek beren hornidura-kateen gardentasuna eta gizarte-erantzukizuna hobetzeko har ditzaketen zenbait printzipio ezartzen ditu. Printzipio horiek, hain zuzen, legedi zehatzak egiteko erabili dituzte. AEBn, 2010. urtean onartutako Dodd-Frank Act legearen 1502 atalak, aipatutako lau mineralak (koltana, wolframioa, eztainua eta urrea) erabiltzen dituzten enpresak haien jatorria

identifikatzera eta beraien merkataritza-jarduerak ekarritako arriskuak kudeatzera behartzen ditu. Ildo berean, 2017ko maiatzaren 17an, antzeko legedia¹ onartu zuen Europar Batasunak, eta lege horrek mineralen hornidura arduratsuko jardunbideak sartzera behartzen ditu mineral horien zuzeneko inportatzaileak.

Arautegi horien aurrerapenaz gain, mineralen trazabilitate sistema bat sortzen ari da lur gainean zenbait eragile publikok eta pribatuk sustatuta, Aintzira Handien eskualdean gatazkarik gabeko meatzeak egiaztatzeke helburuarekin. Lan horrek erroka handia eskatzen du. Berriki egindako azterlan baten arabera², KEDko ekialdean bakarrik 2.026 meatze inguru daude, 325.000km² inguruko eremu batean banatuta. Meatze-ustiategi txiki horietako askotara ezin da heldu azpiegitura faltagatik, eta bisitatu ziren erdietan talde armatuak egon ziren.

Ikerketa honetan *Synergie des Femmes* sarearekin lankidetzan aritzeari esker, zuzenean ezagutu ditugu Rubaya/Masisiko (Iparraldeko Kivu probintzia) emakumeen trazabilitate sistemen eragin sozioekonomikoak. Erakunde honek sexu-indarkeriaren biktimekin egiten duen laguntza-lagunak kalkulazina den balioa du, izan ere, konpontzea eta zuzentasuna bilatzen dute. Ausardiaren, adrearen eta solidaritatearen adibideak dira. Orain irakurriko dituzun orriak haren lanaren emaitza dira, eta **ALBOAN** fundaziotik eskerrak eman nahi dizkiegu KEDko ekialdeko meatze-erkidegoek bizi duten errealitatearen bazterrik ilunenak argitzeagatik.

Alicia Aleman eta Guillermo Otano
Ikerlanak eta prestakuntza-proposamena
ALBOAN

¹ EB 2017/821 Erregelamendua hemen eskuragai: <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?uri=CELEX:32017R0821>

² Ikusi International Peace Information Service (IPIS) zerbitzuak egindako *Analysis of the Interactive map of artisanal mining areas in eastern DR Congo* txostenaren 2015eko eguneratzea. Hemen ikus daiteke: <https://goo.gl/7U9wdY>

Eskerrak

Lehendabizi eskerrak eman nahi dizkiogu **ALBOAN** GKEren zuzendaritzari Gatazkarik Gabeko Teknologia kanpainarekin egindako lanarengatik. Rubayako koltan-meatzeko emakumeen egoeraren aurrean agertutako interesa eta Iparraldeko Kivu probintzian dagoen Maisisi balio-katean parte hartzea oso garrantzitsua da guretzat.

Gure eskerrak SMB sozietateko eta COOPERAMMAko funtzionarioentzat, Meatze Administraziozko langileentzat, OIMko PACT/ITRI erakundeentzat, SAKIMAKo CBRMT/Tetra Tech, FEC/Meatzaritza eta Kivuko Merkatarien Elkarteentzat ere badira. Esan gabe doa haien lana erabat nabarmentzen dugula.

Orain aurkeztuko dugun txostenak gizarte zibilaren, SMBren eta COOPERAMMAren arteko elkarre sortzaile baten hasiera erakusten du. Datuak biltzeko denbora nahi genuena baino laburragoa izan bazen ere, interesa agertutako alderdien laguntza zintzo eta osoa jaso genuen. Haien laguntzarik gabe ezin izango genuke azterlan hau egin eta ez luke interes praktikorik izango.

Justine Masika

Synergie des Femmes pour les Victimes des Violences Sexuelles (SFVS)ko koordinatzailea



Siglak

ALBOAN	Jesusen Lagundiak sustatuko GKE
ANEMNKI	Association des Négociants Miniers du Nord-Kivu (Iparraldeko Kivuko merkatari meatzarien elkarte)
ASSODIP	Association pour le Développement des Initiatives Paysannes (Nekazari Ekimenen Garapenerako Elkarte)
BGR	Bundessanstalt für Geowissenschaften und Rohstoffe (Geoziencia eta Natura Baliabideen Institutu Federala)
CAMI	Meatze-katastroa
CEEC	Centre d'Évaluation, d'Expertise et de Certification (Ebaluazio, Peritatze eta Ziurtatzeko Zentroa)
CIRGL	Aintzira Handien Eskualdeko Nazioarteko Konferentzia
COOPERAMMA	Coopérative des Exploitants Artisanaux Miniers de Masisi (Masisiko Artisan Meatzarien Kooperatiba)
CSAC	Zaintza eta Ustelkeriaren Kontrako Batzordea
FEC-Mines	Kongoko Mehagintza Enpreses Federazioa
FARDC	Kongoko Errepublika Demokratikoko Indar Armatuak
GEPACER	Baliabide Hidrikoak Mantentzeko Batzordea
IPIS	International Peace Information Service (Bakearen aldeko Nazioarteko Informazio Zerbitzua)
ITIE	Erauzketa Industrien Gardentasunaren aldeko Ekimena
ITRI	International Tin Research Institute (Eztainuari buruzko Nazioarteko Ikerketa Institutua)
iTSCi	ITRIren ekimena Eztainuaren Hornidura Katerako
MHI	Nazioarteko Mwangachuchu Hizi
OCDE	Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea
OIM	Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea
OXFAM	Gosearen Kontra Laguntzeko Oxfordeko Batzordea
PBG	Panfrican Business Group (Enpresari Talde Panafrikarra)
RDC	Kongoko Errepublika Demokratikoa
SAESSCAM	Service d'Assistance et d'Encadrement du Small Scale Mining (Eskala txikiko Meatzaritzaren Laguntza eta Erregulazio Zerbitzua)
SAKIMA	Société Aurifère du Kivu et du Maniema (Kivuko eta Maniemako Urre Sozietatea)
SFVS	Synergie des Femmes pour les Victimes des Violences Sexuelles (Sexu Indarkeriaren kontrako Emakumeen Sinergia)
SMB	Bisunzuko Meatze Sozietatea
SOMINKI	Société Minière et Industrielle du Kivu (Kivuko Industria Meatze Sozietatea)
SOPROP	Solidarité pour la Promotion sociale et la Paix (Gizartea eta Bakea Sustatzeko Solidaritatea)
TetraTech	Enpresa liderra aholkularitza eta ingeniariaritzaren zerbitzuen arloan

Laburpen exekutiboa

Joan den 2016ko uztailaren 21ean Dodd-Frank Legearen seigarren urteurrena izan zen. Wall Street berritzeko eta kontsumitzaileak babesteko legea da. Lege horren 1502. atalean ezarritakoaren arabera, azken kontsumitzaileek –funtsean AEBko zenbait enpresa elektronikok– beraien produktuak fabrikatzeko erabiltzen dituzten mineralen jatorria jakinarazi behar dute 2011ko apiriletik. Horrez gain, mineral horiek Kongoko Errepublika Demokratikotik edo mugako herrialde batetik badatoz, behar bezala lan egiten dutela frogatu ere egin behar dute. Neurri horien helburua 3TG mineralen (tantalioa, koltanetik ateratzen dena, eztainua, wolframioa eta urrea, ingelesezko siglak dira) ustiapenaren eta komertzializazioaren eta gatazka armatuen finantzazioaren artean dagoen loturarekin amaitzea zen.

Dodd-Frank Legearen 1502 atala, katearen amaierako eragileei zuzenean aplikatzen bazaie ere, egiazki zorrotzagoa da katearen hasierako eragileekin: Aintzira Handien Eskualdeko Nazioarteko Konferentziako (AHENK) Estatu kideen artisau-meatzaritzza, eta bereziki Kongoko Errepublika Demokratikokoa (KED). Hori dela eta, aipatutako 1502 atala jasotzen zuen legea atera eta hiru hilabete geroago bakarrik, 2010eko urriaren 9an, KEDek artisau meatze-ustiapena eten egin zuen herrialdeko ekialdean. Zertxobait geroago, KEDek *Manuel des procédures de traçabilité des produits miniers de l'extraction à l'exportation* («Erauzketako meatze-produktuen trazabilitate-prozeduren eskuliburua esportaziorako») eskuliburua argitaratu zuen. Horren ondorioz, zenbait ekimen egin ziren aplikatzeko, besteak beste artisau meatze-kokalekuen desmilitarizazioa, merkataritza-zentroak eraikitzea, Meatze eta Hidrokarburoen Polizia-unitateak osatzea eta hedatzea, artisau meatze-kokalekuen kalifikazioa eta balidazioa, ustiatzeko eskubideen titularren eta meatze-kooperatiben arteko akordio-memorandumen sinatzea, etiketatze sistemaren ezartzea, Artisau Ustiapeneko Urrearen Trazabilitaterako Ekimena (ITOA), CIRGL ziurtagiria eta abar. Tokiko ekimen hauei 1. ERANSKINEAN jasotzen diren eskualdeko eta nazioarteko batzuk gehitu behar zaizkie.

Espero zenez, aurrerapen hauek ondorio latzak izan dituzte eta eztabaidak sortu dituzte sektore publiko nahiz pribatuko aliantzetan eta mundu



akademikoan. Baina Dodd-Frank Legearen ondorio positibo edo negatiboek haratago, argitalpen honen helburua genero-gaiei buruzko eztabaida sustatzea da, baina bereziki KEDeko ekialdean artisau-meatzaritzari atxikitako genero-rolen espezifikotasuna.

Emakumeak KEDen bizitza ekonomikoan duen eginkizun nagusia kontuan hartzen badugu, herrialdeko ekialdean bereziki, generoak zeharkako gaia izan beharko luke, gaur egun, artisau-meatzaritzan gertatzen ari denaz jabetzeko. 3TG mineralen balio-katearen hasieran lan egiten duten eragileen kontzientziazio hori aurrekaririk gabeko gertaera denez, aukeraz baliatu beharko genuke emakumeen partehartzea eraginkorra izan dadin, emakumeen eskubideak sustatzeari eta babesteari buruzko legeen eta konbentzioen arabera.

Txosten hau, Rubayan eta haren inguruan egindako ikerketa baten emaitza da. Ere mu horretan, trazabilitate-proiektu pilotua abian jarri da dagoeneko Iparraldeko Kivuko probintzian.

Ikerketaren arabera:

- Meatzeen etiketatze eta ziurtatze sistemak eragin handia izan du Rubayako hirian eta Masisiko herrietan. Hala ere, ikerketak jasotako zenbait datu kontuan hartu behar dira baloratzeko:
 - ▶ Egiaztatu da eskualdean hazkunde demografiko handia gertatu dela; Rubayako hirian bereziki. Baina horrek ez du oinarrizko zerbitzuen gehikuntza ekarri haur hezkuntzan eta osasun-arretan.
 - ▶ Egiaztatu da prezioek behera egin dutela, eta inkesta egindako pertsonen arabera, hauek izan dira horren arrazoiak: nazioarteko prezioak jaitsi direla, zenbait eragile garrantzitsuak tokiko merkataritzan ezartzen duten monopolioa, eta etiketatze-sistema bera.
 - ▶ Biztanleek ez dakizkitez trazabilitate-sistemaren helburuak eta funtzionamendua.
 - ▶ Garraio-azpiegituren hobekuntzan eragin txikia izan du eta mineralen merkataritzarengatik gertatu da, ez gizartearen ongirako.
 - ▶ Bertako erkidegoek irabazi ekonomiko gutxi lortu dituzte, meatze-iruzurrarengatik batik bat.
 - ▶ Meatzaritzaren goraldia presio handia eragiten ari da lurretara sartzeko eta landako eskulana meatzetara eramateko.
 - ▶ Meatzaritzaren ingurumen-eraginek lurren gaineko presioan eta uraren kutsaduraren dute eragina, eta hori erkidegoko osasunaren kalterako da (esaterako, gaixotasun berriak agertzen dira).
 - ▶ Ez da hobekuntzarik egon meatze-lekuen lan-baldintzetan, hala ere, badirudi aurrerapenak egiten ari direla haur-esplotazioaren kontrako borrokan.
- Aldaketa horiek, oro har, bereziki ezezkorrak izan dira erkidegoko emakumeentzat, alderdi hauei erreparatuta:
 - ▶ Emakumeen aukera ekonomikoak, orain arte nekazaritzarekin lotuak, okertu egin dira laborantzarako lurak gutxitzeagatik. Meatze boomaren ondoren mantendutako laborantza-titulu eskasak gizonen esku daude.
 - ▶ Emakumeek ez dute ia ezer lortu artisau-meatzaritzaren sektoreak sortutako etekinetatik. Zeregin ezberdinak egiten balio-katean parte hartzen badute ere, ez daude gizonen parean. Ez die lizentziarik ("carte de creuseur") ematen, ziurtatutako meatzean legez lan egiteko, eta, ondorioz, ez dute meatzarien kooperatibetan ere (SBM) parte hartzen.
 - ▶ Diskriminazio hori gertatzen da hango biztanleek ez dituztelako nazioarteko araudiak eza-gutzen, meategien jabeek modu interesatuan interpretatzen baitituzte emakumeak kanpoan uzteko. Esate baterako, haurdun dauden emakumeek ezin dute meategietan lanik egin, eta hori emakume *guztiengana* zabaldu dute.
 - ▶ Haurren prostituzioa nabarmen igo da eta erkidegoko neskatxan haurdunaldi goiztiarrak ere bai, emakumeen aurkako sexu-indarkeria bezala.
 - ▶ Sexu-indarkeriaren biktimak eskualdeko osasun-zentroetara joan daitezke, baina horietan ez dago arreta-programa espezifikorik. Hori dela-eta, SFVS bezalako erakunde sozialetara desbideratzen dituzte.
- Genero-desberdintasun horien efektuei aurre egiteko, tokiko agintariei gomendatzen zaie tokiko garapen-plana egitea, artisau meatze-sektorearen gobernantza hobetze aldera, eta plan horretan eskualdeko emakumeen ahotsa sartzea. Horretarako, beharrezkoa da proiektuaren fase guztietan parte hartzea; hots, diseinutik hasi, ezarpen eta segimenduraino.



1. Sarrera

“Gatazkarik Gabeko Teknologia” kanpainari laguntzeko argudioak indartzeko, **ALBOAN** fundazioak Dodd-Frank Legea atera eta gero ziurtatutako meatze bat ikertu du, emakumeen egoeran zer eragin duen jakiteko. Artisau-merkataritza sektoreak ekonomia eta gizarte aldetik garrantzi handia du Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdean. Han aurkitzen dira 3T eta Urrearen erreserba gehienak. Soilik Kivuko Iparraldeko eta Hegoaldeko probintzietan 602 eta 659 meatze-ustiategi daude, hurrenez hurren³. Eskualdean talde armatuak daude, eta hori beste erronka bat da tokiko gobernantzarentzat. Gainera, horri gehitu behar zaizkio azpiegitura eta zerbitzurik ez izatea, analfabetismo eta probreziaz gain. .

³ IPISen datu-basearen arabera.

Azken urteetan, ahalegin handiak egin dira meatze-ustiategiak desmilitarizatzeko eta ziurtatzeko, baina erronkak ez dira amaitzen. Zer-nolako inpaktuak dituzte ahalegin horiek tokiko erkidegoetako gizon eta emakumeengan? Zeintzuk dira haien premiak eta etorkizunari begira zer espero dute?

Gai horiei erantzuteko hautatutako meatzekokapenak Rubaya eta inguruetakoko herrixkak izan dira, Masisi lurraldean, Iparraldeko Kivuko probintzian, Kongoko Errepublika Demokratikoan. Erkidego horietako meatze-ustiategi gehienak koltana ateratzen aritzen dira, eta, ziurtagiria lortzen lehenak izan direnez, erkidegoak izandako efektuak aztertu nahi ditugu.

1. mapa. Aintzira Handiak eta Rubayako eskualdea, Iparraldeko Kivuko probintzian, Kongoko Errepublika Demokratikoko ekialdean



Gizonen eta emakumeen arteko eskubideen berdintasun formala onartzea:

«Botere publikoek emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak kentzearen alde egiten dute eta haien eskubideen babesa eta sustapena bermatzen dute.

Esparru guztietan, esparru zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen batik bat, neurri egoki guztiak hartzen dituzte emakumeak nazioaren garapenean parte hartzen duelako bermatzeko [...]»

2006ko Konstituzioaren 14. artikulua

Emakumeen eskubideei dagokienez, KEDEk aurrerapen handiak izan ditu arauetan, eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalarekiko, Giza Eskubideen eta Herrien Afrikako Gutunarekiko, Emakumearen Kontrako Diskriminazio Era guztiak Ezabatzeko Konbentzioarekiko, Nazio Batuen Segurtasun Batzordearen "Emakumeak, Bakea eta Segurtasuna" ebazpenekiko eta Afrikako Emakumeen Eskubideei buruzko Protokoloarekiko (Maputoko Protokoloa) atxikipena eta konpromisoa berretsi du. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun printzipioa KEDko Magna Kartan ere aintzatetsi dute.

Hala ere, aurrerapen horiek guztiak alde batera utzita, bistakoa da emakumeak KEDko ekialdean artisau-meatzaritzaren sektorean duen eginkizunak marjinala izaten jarraitzen duela. Hori dela eta, gure ustez, ELGAK sustatutako Gatazkarik Gabeko Mineralen Arduraduna den Hornidura Kateetarako Nahitaezko Eginbideari jartzen zaion adinako arreta gutxienez jarri beharko litzaioke bultzatzeko.

KEDeko Meatzeen Legeak, CIRGL ziurtagiriaren Eskualdeko Ziurtatze Mekanismoak eta Dodd-Frank Legeak eta bestelakoek emakumeak mineralen hornidura-katean parte hartzea berariaz ezartzen ez badute ere, ez dute debekatzen ere. Izan ere, aktiboki parte hartzen dute artisau-meatzaritzarekin lotutako ia jarduera guztietan. Gure abiapuntuko hipotesia da zenbait diskriminazio-mekanismok baldintzatzen dutela, eta horren eraginez, leku marjinal batean kokatzera bultzatzen dituztela mineralen hornidura-katean. Horregatik, lan honek Rubayako emakumeen errealitatea ebaluatzen du lan honek, giza eskubideen ikuspegi batetik, aurretik aipatutako tresna juridikoetan oinarrituta.

2. Ikerketaren helburuak

- ▶ Giza eskubideen egoera oro har eta emakumeena bereziki aztertzea Rubayako meatzeetan, meatzeen etiketatze eta ziurtatze sistema batik bat.
- ▶ Giza eskubideen indarkeriak eta emakumeen gaineko abusuak identifikatzea meatze-lekuetan ziurtatu aurretik, matxino-taldeak eta FARDCen matxinoak zeudenean eta desmilitarizatu ondoren.

- ▶ 3Tren prezioa, gutxi gorabeherako ekoizpena eta artisau-meatzaritzan aritzen direnen batez besteko diru-sarrerak zehaztea, meatzeak ziurtatu aurretik eta ziurtatu ondoren.
- ▶ Rubayako balio-katearen finantza-fluxuen berri ematea etiketatze-sistema ezartzen denetik, eta tokiko erkidegoetan oro har eta emakumeengan bereziki dituzten ondorio sozioekonomikoak aztertzea, katean esku hartzen duten eragilean gizarte- eta ingurumen-erantzukizuna kontuan hartuz.

3. Erabilitako metodologia

Rubaya/Masisiko trazabilitate-sistemaren azterketa ikerketa-teknika desberdinak konbinatzen dituen partaidetzako metodologia batean oinarritu da. Batetik, hurbilketa kualitatibo bat egiten du, talde nagusiekin erdi egituratuta dauden elkarrizketak eta banakako elkarrizketak eginez, agiriak aztertuz, zuzeneko behaketa eginez eta tokiko erkidegoko maila desberdinetako eragile nagusiekin izandako elkarrizketen bidez.

Bestalde, arlo kuantitatiboan, 103 banakoko (37 emakume eta 66 gizon) biztanleria heterogeneora egokitutako galdeketa bat egin zen. Inkesta bidez elkarrizketatutako pertsonen artean hauek ere barne hartu ziren: tokiko administrazio-agintariak eta agintari tradizionalak, Eskala Txikiko Meatzaritzaren Laguntza eta Erregulazio Zerbitzuko (SAESSCAM) eragileak, Meatzeen Administrazioa, Bisunzuko Meatze Sozietatea (SMB), Masisiko Artisau Meatzarien Kooperatiba (COOPERAMMA), merkatariak, harginak, Meatze eta Hidrokarburoen Polizia, Rubayako sozietate zibileko eta biztanleen elkarteetako ekintzaileak, Mushaki, Mumba, Kibabi, Bihambwe, Humule, Matanda, Kashovu eta Sake herrietakoak. Rushogako biztanleei dagokienez, taldea ezin izan zen heldu, bideen irisgarritasun arazoengatik.

Emakumeen partaidetza txikia tokiko erakunde eta elkarte askotan dauden genero-desberdintasunen eta emakumeen esparru publikoan duten bazterreko tokiaren isla da. Paradoxikoki erkidegoko bizitzak aurrera egiteko haien lana funtsezkoa bada ere.

4. Ikerketaren emaitzak

Gomatik 64 km-ra kokatuta, gutxi gorabehera hiru ordu lur orotako ibilgailu batean, Rubaya deszentralizatuta dagoen lurralde-erakunde bat da, eta gaur egun, gobernadorearen funtzionario delegatu bakar batek kudeatzen du. Masisi lurraldean dago, Iparraldeko Kivuko probintzian. Iparraldetik, Bashali mugatzen du, hegoaldeetik, Katoyiko sektore-gizataldeak, ekialdeetik, Ufamandu 1. eta Muvunyi-Shanga gizataldeek eta mendebaldetik, Osso Banyunguko sektore-gizataldeak.

Eremuan hiru administrazio-erakunde daude: Kibabiko elkarte, Rubayako administrazio-postua eta Matandako elkarte bulegoa. Nabarmendu behar dugu Rubayak, Kibabiko Estatuko Administrazioaren mende zegoenak, 1999ko otsailaren 16an sartu zela administrazio-autonomiara. Administrazio-erakunde hori, Bahundeko *mwami*-ren agintari hierarkikoaren mendean dagoela, eta haren buruzagitza Bweremanan dagoela.



Higiezinaren goraldi betean, Rubaya meatzeen ustiapenarekin lotutako dago garai kolonialetik. Zenbait begiralek ez dute zalantzarik koltaneko meatze-erreserbak agortzen direnean desagertuko dela, eremu horretako mineralik ugariena delako. Hirian tradizioz hunde, hutu eta tutsi etniak bizi izan dira, baina gaur egun, beste leku batzuetatik modu masiboan etortzen ari dira koltanaren *boomarengatik*. Eremuko hazkunde demografikoa da orain aztertuko dugun lehen eragin sozioekonomikoa.

4.1. Trazabilitate sistemaren eragin sozioekonomikoa

4.1.1. Rubayako eskualdearen aldaketa demografikoa

Artisau-meatzaritzak eremuan ibilbide luzea egin badu ere, azken urteetan hazkunde nabaria izan du. Lehendabizi, joan den hamarkadan, eta berri-

ki, trazabilitate-sistemen ezarpenarengatik, "lehengaien goraldia" delakoarengatik. Azken hori meatze-ustiapenen desmilitarizazioaren ondoren bakarrik egin ahal izan zen. Harrezkero, eremuaren nolabaiteko egonkortasunari esker, bertako merkataritza bultzatu ahal izan da, eta horretan Rubaya hurbil dauden beste lurraldeetatik bereizten da, izan ere, indar armatuak egoteak meatze-jarduera nabarmen eragozten du oraindik.

Aldaketa horren ondorioz, biztanleak hirira joan dira eta handik hurbil dauden herrixkak jendez hustu dira. Rubayako Osasun Saileko agintarien arabera, hiriko dentsitate demografikoa izugarri handitu da: gaur egun, 44.661 biztanle daude, 2014ko martxoan mineralen etiketatze-sistema ezarri aurretik zeuden 1.287 biztanleen aldean.

Rubayako hiriaren hazkunde demografikoa izugarria izan da. Horrez gain, Masisiko eskualdeko herri nagusiek ere biztanle kopuruaren igoera handia izan dute, Kibabik izan ezik, gutxi gorabehera



kopuru berarekin jarraitu duelako. Lehen taulan ikusten denez, Mumbako herriak, esaterako, biztanle kopurua ia bikoiztu du, eta Bihambawekoa heren bat handitu da. Hori guztia tarte laburrean, 24 hiletan bakarrik.

Elkarrizketatutako pertsonak diote trazabilitate-sistemak eremuko lurreko lotura kopurua handitu duela. 2014. urtearen baino lehen, herri nagusiak lotzen zituzten hamar bide zeuden; 2016. urtean, hiru errepide berriak eraiki ondoren, hamahiru

1. taula: Rubayako eskualdeko ezarpenen biztanle kopurua. Trazabilitate-sistema ezarri aurretik eta ondoren			
Zk.	Herriaren izena	Lehen (2014)	Gero (2016)
1	Rubaya	1.287	44.661
2	Mumba	3.654	7.556
3	Bihambwe	4.950	6.926
4	Kibabi	44.000*	44.392
	Guztira	53.891	103.536

* Kibabiren kasuan ezin izan genuen aurkitu 2014. urteko datu demografikorik, baina elkarrizketatuen ustez, ez da gertatu demografiaren aldaketa handirik. Zifra hau estimazio zakarra da.

Baliabide mineralen bilaketak eragindako eromenak eta aurretik aipatutako faktoreek ekarri dute biztanle kopuruaren hazkunde hori. Hala ere, joera horren azkartzeak erronka handiak ere ekartzen ditu beste esparru batzuetan, hala nola oinarritzko zerbitzuetarako sarbidean, haurren eskolatzetasetan, azpiegituretan edo ingurumenen. Bestalde, aldaketa horrek eskualdeko emakumeengan izan dituen eragin negatiboak ere erakutsiko ditugu.

4.1.2. Errepideen egoera

Mineralen trazabilitate-sistema ezarri ondoren hiru errepide eraiki dira Rubayako eskualdean. Ordura arte lurraldearen hegoaldea zeharkatzen zuten bi errepide bakarrik zeuden: Goma-Bihambwe-Rubaya ibilbidea egiten duena eta Rubaya-Muba-Nungu. Bi horiei beste bat gehitu zioten, meatze-lekuen ziurtatzearen ondoren bultzatutakoa: Humuletik abiatu eta SMB eta Muderitik igarotzen da Rubayaraino heldu arte. Hala ere, horien guztien egoera oraindik oso txarra zen ikerketa hau egin zenean.

daude. Hala ere, inkesta erantzun zutenentzat errepideen kalitatea ia ez da hobetu. Kontuan hartu behar dugu bide horiek ez daudela zolatuta eta euria egiten duenean ia ezin dela igaro lokatzarengatik.



COPERAMMA bideak berritzen ari da, eta lan hori, egun osoan peoi gisa lan egiten duten gizon eta emakumeek egiten dute. Hala ere, jendeak uste du kooperatibaren interesa ez dela erkidegoaren ongizatea, mineralak erraz garraiatzea baizik. Izan daiteke, kontuan hartzen badugu lurreko azpiegiturak hobetzen dituen tokiko garapen-planik ez dagoela.

4.1.3. Osasun komunitarioa

a) Osasun-zentroetarako sarbidea

Osasun-zentro kopuruak berdina izaten jarraitzen du trazabilitate-sistema ezarri aurretik eta ondoren. Ez da eraiki osasun-arretarako instalazio berriak, nahiz eta eremuak hazkunde demografiko handia izan. Baina premiak era esponontzian gehitu dira, azken hiru urteetan izandako ezohiko hazkundearen ondorioz. Ondorioak biztanleriaren pilaketan ez ezik, saihesta daitezkeen gaixotasunen igoeran ere ikusten dira.

Egoera bereziki larria da sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzat, fenomenoaren proportzionalean larriagotu baita, zentro horietako bakar batek ere arreta-programa espezifikorik izan gabe. Lan hori eskualdeko gobernu kanpoko erakundeek egin behar dute.

Osasunerako sarbideari dagokionez, alderdi positibo gisa, doako arreta ezarri da Rubaya eta Kibabiko osasun-zentroetan. Baina horren arrazoiak ez da meatze-ustiapenen ziurtatzea; Italiako lankidetzak emandako laguntzari esker baizik.

b) Meatze-istripuen kudeaketa

Masisiko zenbait lekutako lurren geologiak hiltzeko lekuak bihurtzen ditu Rubayako zenbait meatze. «Agian hori da Rubayako koltanaren *boomaren* prezioa⁴ —onartu zigun hargin batek. Segurtasun-arrazoiak direla eta ez dugu esango bere izena—. Egunero gertatzen dira luiziak» —gaineratu zuen. Rubayako emankorrenetako bat den D4 Gakombe meatzeari «hobi komunak»⁵ esaten zaio, ia etengabe gertatzen diren istripuen hildako kopuruarengatik. Meatzeen administrazioak

bi alditan eten ditu meatzeko lanak, 2015eko urtarilaren 10ean eta ekainaren 20an, baina alferrik. Egunean zehar bakarrik eteten da, eta «gauean bikoitza lan egiten da»⁶.

Rubayako balio-katean parte hartzen duten eragileek arriskuak nola kudeatzen dituzten galdetu badugu ere, ezin izan dugu aurkitu kudeatzeko eta arriskuak arintzeko inolako plan formalik. Luizi kasuak adiskidetasunez kudeatzen dira, biktima hargin-txartel baten titularra bada eta bere familiarik eremuan ezaguna den ala ez kontuan hartuz. «Arau orokorra da 300\$ USD-ko kalte-ordaina ez gaintzea [Rubayako meatzeetako istripuen biktimentzat], eta kalte-ordain hori meatzearen jabeak ordaintzen du»⁷.

c) Higienea eta meatze-lekuen osasungaitasuna

Ikerketak egiaztatzen du hogeita zazpi jauzi-iturri daudela; horietatik, hamabi, Nazioarteko Oxfam erakundeak egokitu zituen, Rubayako hirian trazabilitate-sistema ezarri baino askoz ere lehenago. Oraindik hogeita zazpi jauzi-iturri badabilzan arren, oso gutxitan dago edateko urik, eta egokitze-egituren egoera kaskarrak ez du bermatzen gaur egun uraren edangarritasuna. Zenbait jauzi-iturrik ez dute ez txorrotik ez balbularik.

Rubayako Baliabide Hidrikoak Mantentzeko Batzordearen arabera (GEPACER), «harginak beti dabilta ura bilatzen, Rubayako meatze-produktuek ur kantitate handia behar dutelako garbitzeko, eremua ebakuatu aurretik». Mineralen garbiketa izango litzateke hirian dagoen ur eskasiaren arrazoi nagusia. Hori dela eta harginek hiria hornitzen duen sarearen hodiak ebakitzen dituzte ura beraien garbitokietara desbideratzeko.

Ur-eskasia horren ondorioak, besteak beste urarekin zerikusia duten gaixotasunak izango lirateke, biztanleak horiekiko ahulak direlako bereziki.

⁴ Hargin batekin egindako elkarrizketa Luwowon, 2016eko ekainean.

⁵ Hargin batekin egindako elkarrizketa D4 Gakomben, 2016eko ekainean.

⁶ Hargin batekin egindako elkarrizketa Luwowon, 2016eko ekainean.

⁷ Hargin batekin egindako elkarrizketa Luwowon, 2016eko ekainean.



4.1.4. Haurren eskolatzea

Matrikulazio-tasa Lehen Hezkuntzan oraindik oso baxua da Rubayako inguruko herrietan. Haurtzaroen hezkuntza formalik ez egoteak eragin negatiboa du helduaroan, eta pobrezian bizitzeko aukera handitu egiten da. Hori horrela, arazoa ez da eskolara joan ahal izatea bakarrik; eskola-uzteen tasa handien kontra borrokatzea baizik. Familiari dirua irabazten laguntzeko beharra da adingabeek eskola uzteko arrazoi nagusietako bat, izan ere, mineralak aukeratzen eta garbitzen lagundu behar dute.

Eskola-uzteen tasak bereziki altuak dira nesken artean (eskola-adinean dauden Rubayako nesken % 60 baino gehiago ez doa eskolara; mutilen kasuan, ehuneko hori % 20koa bakarrik da⁸. Fenomeno honen arrazoiak genero-diskriminazioan daude (esaterako, etxeko lanaren banaketan, ezkontza goiztiarretan eta abar), eta haren ondorioek emakumeek helduaroan duten desabantaila betikitzen dute.

⁸ Rubauako eta ondoko herrixketako tokiko eta eskolako agintariak, 2016ko ekaina.

4.1.5. «Koltanaren boomaren» ondorioak nekazaritzan eta ingurumenean

Jasotako lekukotasun batzuen arabera, meatze-hobi berriak aurkitzeak beren lursailak meatze-operadorei oso merke saltzera behartu zituzten. Horren ondorioz, «kultibadoreek 350 USD-n alokatu behar dituzte lursailak, hektareako eta landatutako sasoiko»⁹. Ondorioz, gero eta soro landu gutxiago daude eta nekazari-familia askok beste herri batzuetara joan behar izaten dute, «Rubayako hiriko El Doradora». Soro landuen eskasia horrek nabarmen murrizten du nekazari-ekoizpena, eta horren ondorio zuzena da elikagaien prezioek gora egiten dutela. Horrez gain, lantzeko oraindik eskura daitezkeen lur asko Rubayako meatze-ezarpenetatik goitik botatzen dituzten ur lohitsuengatik kutsatu dira. Ur horien toxikotasun maila oraindik ez da zehaztu. Rubayan

⁹ Nekazari batekin egindako elkarrizketa Rubayan, 2016eko ekainean.

egindako elkarrizketak kontuan hartuz, elikagaien eskasia-egoera horrek eremuko biztanleek duten marasmoa eta «*kwashiorkor*»¹⁰ eragin dute.

Rubayako ekonomia 1985ean hasi zen nekazari-tzatik artisau-meatzaritza aldatzen, Kivuko antzinako Meatze Sozietatea deseginda (SOMINKI). Harrezkero, **artisau-meatzaritza eskualdeko ekonomiaren oinarri nagusi bihurtu zen**, eta antzinako nekazari eta abeltzain asko meatzari bihurtu ziren gauetik goizera. Hargin gisa sartu zi-

¹⁰ Argitaratzaileen oharra: «*Kwashiorkor*» Kwa hizkuntzaren hitza da, jatorriz Ghanakoa dena. Hitz hori gaur egun nabarmen onartuta dago haurtzaroan bereziki larria den sindrome kliniko bati buruz hitz egiteko. Horrek balio biologiko handiko proteinen eskasia larria eta kaloria kopuru desegokia hartzea eragiten du. Bere eragina titia kentzen denetik edo lehenago nabaritu daiteke, amaren desnutrizioa muturrekoa bada, bost urtera arte, hala ere, adin horietan duen eraginak geroagoko garapenean ondorio negatiboa izan dezake.



ren batzuk merkataria bihurtuz amaitu zuten gero, eta gaur egun, asko aberastu dira prozesatze-industrietako jabe gisa. Horien artean daude Edouard Mwangachuchu Hizi, Bisunzuko Soci  t   Mini  re (SMB) elkartearen jabea, 2006ko uztailearen 8ko CAMI/CE/2430/2006 ustiapen-ziurtagiriaren titularrak, 2006ko uztailearen 7ko 4731 ustiapen-baimenaren arabera eta Robert Seninga Habinshuti, Masisiko Coop  rative des Exploitants Miniers Artisanaux (COOPERAMMA) kooperatibako presidentea, 2012ko abuztuaren 8ko 0447/CAB.MIN/MINES/01/2012 administrazio-xedapenak baimenduta.

Rubayako meatze-ustiapena batera egin dute SMBk eta COOPERAMMAk, 2013ko azaroaren 28an sinatutako lankidetzak-akordio bati esker. Akordio horren arabera, «bi alderdiek lankidetzagiro positibo eta zintzoa ezartzeko, eta MHIren [SMB gaur egun] meatze-eskubideen titulua barne hartzen duen lekuetan bizi diren erkidegoen bizikidetzak baketsua izateko konpromisoa hartzen dute»¹¹. Lankidetzak horrek hau ekartzen du bereziki: «MHIk onartzea COOPERAMMAko artisau-meatzariek lanean jarraitzea [mineralak beren kabuz ustiatuz] meatze-eskubideen titulua barne hartzen duten meatze-ezarpenetan», eta COOPERAMMAk «bere ekoizpen osoa MHIri bertako merkatuan dagoen erosketa arrunteko preziora [...]»¹².

Joint-venture honek azkenik **etiketatze-sistema ezarri zuen 2014ko martxoan**, eta horrela, **gatazkarik gabeko mineralen lehen hornidurakatea finkatu zuen Iparraldeko Kivuko probintzian**. Lehen hiru hiletan koltanaren hileko ekoizpena «% 350 baino gehiago handitu zen, hau da, 250 tonakoa izan zen, etiketatzea ezarri aurretik erauzten diren 70 tonen aurrean»¹³.

¹¹ Ets. Mwangachuchu Hizi International (MHI), gaur egun SMB, eta Artisau Meatzarien Kooperatiba arteko 2013/11/28ko lankidetzak-akordioaren txostenaren 11. artikulua.

¹² Ets. Mwangachuchu Hizi International (MHI), gaur egun SMB, eta Artisau Meatzarien Kooperatiba arteko 2013/1/28ko lankidetzak-akordioaren txostenaren 1. eta 2. artikulua.

¹³ 2014-2015eko meatze-ekoizpenaren estatistiken azterketa dokumentala; Iturriak: SAESSCAM, Iparraldeko Kivuko Meatze eta Geologia dibisioa.



Etekin izugarri horri esker, ekonomikoki eta sozialki bideragarrien den balio-katea bihurtu da Rubaya, nahiz eta horrek erronka existentzialak ere ekarri. Horien artean, hazkunde demografiko azkarrak ekartzen dituen arazoak aipatu ditugu dagoeneko. Baina beste eragin kaltegarri asko batzuk ere aipatu beharko lirarteke, izan ere, Masisi osoaren existentzia bera arriskuan jarlezkete. Rubaya hirira egindako bisitetan honako hauek bezalako efektuak ikus ahal izan ditugu:

- Uneko deforestazio basatia erakusten duten krater handiak, antzinako lursailak, larreak eta bestelako berdeguneak suntsitzen ari dena;
- Paludismoa kutsatzen duten eltxoak hedatzeko tenperatu tropikal egokia;
- Rubayan dauden eta eremuko ia iturri guztiak esponentzialki kutsatzen ari diren mineralen garbitokiek botatzen dituzten lokatz koloreko urak. Emakumeek eta umeek iturri horietatik ura ateratzen dute edateko eta janaria prestatzeko; Rubayako hirian dauden 16 ur-iturrietatik bat bera ere ez dago egokitueta;
- Tradizioz nekazaritzakoa eta artzaintzakoa izan den eremuaren aldaketa ekonomikoa, non meatze-jarduera gaur egun diru-sarrerara iturrien % 63 adierazten duen.

4.2. Meatze ustiapena Rubayan

4.2.1. Mineralen prezioa

Mineralen salmenta-prezioa Rubayako merkatuetan aldakorra da, bertako merkataria, hargin bat edo meatze-zerbitzuko eragile bat den kontuan hartuta. Bakoitzak irabazi desberdina lortzen du, katean duten lekuaren arabera. Oro har, jendeak uste du etiketatze-sistema ezarri baino lehen prezioa altua zela (50 eta 100 \$ USD artekoa kiloko), baina gero, mineralen prezioak behera egin zuela (20 eta 30 \$ artean kiloko). Inkestatutako batzuentzat koltanaren prezioak aldaketa hori izan zuen Bisunzu Meatze Sozietateak meatzeen titularren eta prezioak alde bakarrean finkatzeko gaitasunaren gainean egindako monopolioarengatik. Beste batzuen iritziz, berriz, arrazoiak diralarik zenbait meatze-eremuetako erreserben agortzea, nazioarteko merkatuetan emandako lehengaien prezioaren jaitsiera, eta ondorioz gertatutako meatze-ekoizpenaren beherakada, eta gaur egungo egoera ekonomiko zaila.

Bistakoa da trazabilidade-sistemen ezarpena kontestu zehatz batean gertatu dela, non faktore guzti horiek eta lekulo mailako botere harremanek baldintzatu dituzten talde sozial ezberdinen arteko kostuen eta onuen banaketa (lekuko agintariak, emakumeak, merkataria jabeak). Zenbait ikerketek ohartarazi dute tokiko eliteen kooptazioaren arriskuaz, azkeneko horiek 2010eko zertifikazioak hasi ondoren kooperatibak baliabide naturalak kontrolatzeko tresna gisa hartu baitute¹⁴. Bestaldek, aipaturiko faktoreen gainetik, prezioen ezegonkortasuna ere iruzurra eta kontrabadoaren fruitua da, koltanaren trafikoaren gertatzen den bezala: Ruandako legediak esportazioak errazten ditu eta salmentetarako prezioak altuagoak dira¹⁵.

¹⁴ Altayó Carme, "Los efectos de la regulación de los minerales de conflicto en la economía de guerra" en VV.AA (2016), *La fiebre de los minerales en conflicto*, BCN/Madrid: Ed. Justicia y Paz; EurAc (2017), "Mesures d'accompagnement au Règlement de l'UE sur l'approvisionnement responsable en minerais. Pour un renforcement de la gouvernance du secteur minier artisanal en RDC", 22.03.2017.

¹⁵ NNBBek estimatzen dute KEDko koltana eta eztauaren ekoizpen erdiak aitortzen ez dela, eta hurbileko herrialdeetara legez-kanpo esportatzen dela (adibidez, Ruandara). Ikus Nazio Batuen KESko Adituen Taldea (2014), s/2014/42.

4.2.2. Ustiapenen produktibitatea eta meatze-iruzurra

Prezioaren gorabeherak alde batera utzita, koltanaren hileko ekoizpenak hileko 250 tona inguruan jarraitu zuen 2014ko martxoaren eta 2015eko abenduaren artean, beraz, horrek erakusten digu, hasieran, COOPERAMMA eta SMBren arteko lankidetzak ongi ibili zela.

Hala ere, gaur egun, ofizialki erregistratutako hileko ekoizpena «batez beste 65 tonakoa da»¹⁶. Elkarrizketatutako eragileek zenbait arrazoi aipatu zituzten horretarako, bereziki munduko merkatuan lehengaiek izandako jaitsiera dela eta koltanaren prezioak izandako gorabeherak, SMBk ordaintzetan izandako atzerapenak eta meatzeen baldintza geologiko zailak eta abar. Arrazoi horiek guztiak baliagarriak dira ikuspuntu jakin batetik, baina ez da esaten, eta ekoizpen ofizialaren erortze birtual horren arrazoi nagusia COOPERAMMA eta SMBren arteko pixkanakako urruntzea izan zela.

Bi alderdiek sinatutako Lankidetzak Akordioaren 5. artikulua arabera, «MHik [gaur egungo SMB] eta COOPERAMMAk trazabilitate-arauak zorrozki errespetatzeko konpromisoa hartzen dute, norberaren eskumenen arabera [...]». Hala ere, arrazoiak ditugu pentsatzeko konpromiso hori ez dela betetzen ari. Batetik, adierazi dugunez, 2016ko urtarriletik maiatzera bitarteko Rubayako koltanaren legezko esportazioei buruzko datu estatistiko ofizialen azterketak hileko 65 tonako ekoizpena adierazten du. Bestalde, ikerketa honetan jaso ditugun informazioen arabera, gaur egungo hileko ekoizpena, 2014-2015ekoa baino txikiagoa bada ere, ez da 150 tona koltanekoa baino txikiagoa hilean. Datu ofizialen eta mineralaren merkataritzaren benetako balioespenen arteko aldeak zerga-itzurpeneko arazo larri bat dagoela erakusten du, eta beraz, garapen komunitarioko funtserako irabaziak galtzen direla. Horrek galdera bat eragiten du.

Nora doaz gainerako mineralak? Rubayan eta Goman bildutako datuek erakusten dute «talde antolatu bat dagoela, eta horren barruan, bere ekoizpena SMBri inoiz ez diotela salduko zin egin zuten Rubayako merkataria garrantzitsuak

¹⁶ 2016ko urtarriletik maiatzera bitarteko ekoizpen-estatistiken azterketa; iturria: Iparraldeko Kivuko Meatze Dibisioa, 2016ko ekaina.



daudela»¹⁷. «Merkatari horiek, Ruandan ezarrita dauden meatze-enpresei zuzenean hornitzen dizkiete zamak, Minerals Supply Africa Ltd nagusiki»¹⁸. «Rubayako mineralek muga zeharkatuta, ITRI etiketak jartzen zaizkie. Hor, jatorriz Ruandako meatzek direla adierazten da, eta horri esker, herrialde hori, “munduko lehen koltana-ekoizletzat” hartzen dute»¹⁹.

Iturri berdinen arabera, «iruzur antolatu honetan dauden finantza-interesak izugarriak dira, eta KEDko eta Ruandako gobernuen goi-mailaren pareko adarrak daude»²⁰. Hori esanda, bistakoa da «Rubayako mineralen balio-kateak jarraitzen duela bahiketa baten beldur delako, bestela, COOPERAMMA eta SMB erakundeen arteko bantzea duela asko gertatuko litzateke»²¹.

¹⁷ PACTko eragile batekin egindako elkarrizketa, Goman, 2016ko ekainean.

¹⁸ PACTko eragile batekin egindako elkarrizketa, Goman, 2016ko ekainean.

¹⁹ SAKIMAKo geologo batekin egindako elkarrizketa, Goman, 2016ko ekainean.

²⁰ Nazio Batuetako eragile batekin egindako elkarrizketa, Goman, 2016ko ekainean.

²¹ Nazio Batuetako eragile batekin egindako elkarrizketa, Goman, 2016ko ekainean.

4.2.3. Batez besteko sarrera

Emakumeei, harginei eta eramaileei kokalekuetan eta Rubayako hirian egindako elkarrizketen arabera, mineraletan aberatsa den harea-garraiolarik batek 1500 FRC irabaz dezake garraioko hobotik garbitokira eramatean, eta egunero 10.000 edo baita 15.000 FRC ere irabazi ditzake. Beraz, egunero 12.500 FRC inguru irabazi ditzake, hau da, 14 USD²². Hala ere, noski, eramailearen indarraren eta osasun-egoeraren arabera da funtsean. Hileko diru-sarrerak 416 USD ingurukoak izan daitezkeela balioesten da, beraz, Kongoko Errepublika Demokratikoko Lehen Hezkuntzako hiru maisuren hileko soldataren baliokidea da.

²² Editoreen oharra: Datu hauek 2016ko ekainean bilduta daude, ikerketa honen kanpo-lana egin zenean. Truke-tasa egonkorra mantendu zen USD bakoitzako 900 FRC, 2016ko abenduaren krisi politikoa hasi zen arte, Kabila presidentek hauteskundeetara bigarren epearen amaieran ez deitzeagatik. Harrezkero, herrialdearen ezegonkortasun politikoak ondorio ekonomikoak izan ditu. Orain arte, USD bakoitzako 1.500 FRC ingurukoa da. Hau da, garraiolarik berak gaur egun 8 dolar inguru irabaziko litzuke, 14 izan beharrean.

«Hemen mundu guztiak bere izerdiarekin ateratzen du bizimodua aurrera. Mundu guztiak bere indarraren arabera zerbait egiteko aurkitzen du»²³, esan zigun Fistonek, han «eramaile» esaten dioten mineralen garraiolaria denak.



²³ Fiston Kasigwarekin egindako elkarrizketa Luwowoko ezarpenean, Rubayan, 2016ko ekainean.

4.3. Emakumeek meatzean duten eginkizuna

4.3.1. Emakumeen partaidetza hornidura-katean

Ikerketaren bidez ikusi da emakumeek Rubayako meatze-jardueretan eta balio-kate osoan duten inplikazioa gertaera bat dela, txikia bada ere, eta desabantaila dutela gizonen parte-hartzearekiko. Esate baterako, meategietan lanean ikus daitezke, baina ia ez dute lizentziarik lortzen legez lan egiteko, eta emakumeak ia inoiz ez dira ustiapenen jabeak. Ondorioz, haien egitekoa ere hondarra da kooperatibetan. Hala eta guztiz ere, emakume eta neskatuen presentzia erraz identifikatu daiteke mineralen garbitokietan, han ez baita lizentziarik eskatzen eta kontrol gutxiago baitago. Produktu toxikoen erabilera beste mineraleen garbiketalanetan, hala nola urrea, haien osasunerako kalte larriak azaltzen ditu.

Parte-hartze eskas hori batik bat honako hauek medio gertatzen da:

- ▶ Ohitura atzerakoiak eta sineskeriak. Horien arabera, hilekoa duen emakume batek, meatze-ekoizpen ona izatea eragotziko luke;
- ▶ Ezkontza- eta familia-baldintzak, horien eraginez, emakumeak ez duelako denborarik beste jarduera batzuk egiteko;
- ▶ Dodd-Frank Legearen eta ELGaren Nahitaezko Eginbidearen Gidaren eskaeren interpretazio txarra. Horien ustez, emakumeak meatzeetan egotea debekatzen dute;
- ▶ Autonomia ekonomiko falta (negozioetan arrakasta duten emakumeak oro har emakume emantzipatutzat hartzen dira);
- ▶ Emakumeei orientatzeko eta laguntzeko egoiak diren egitura falta meatze-sektorean, emakumeen elkarte bat gisa edo aurrezpen eta kreditu kooperatiba bat gisa.

4.3.2. Emakumeen eta haurren babesari buruz meatze-lekuetan

Aurrerago adierazi bezala, gero eta errazagoa da aurkitzea emakumeak eta haurrak mineralen garbitokietan, trazabilitate-sistema ezarri ondoren. Nahiz eta pertsona ahulenak izan, berdin tratatzen



dituzte. Ez zaie zainketa berezirik ematen. Inkestatutako batzuek diote dagoeneko ez dagoela haurren lanik meatzeetan; beste batzuek, berriz, badaudela esan zuten, baina egiazki gurasoak bisitatzera doazelako edo jakin-minarengatik edo eremuko lasterbideak erabiltzeko egiten zutela. Emakume haurdunei dagokienez, harrobien inguruan badaude, beraz, ez da baztertzekoa meatze-ustiapenetan parte hartzen dutela.

Eskola-uztearen indizea Rubayan % 60 baino handiagoa dela kontuan hartuz, zaila da saihestea (ezinezkoa dela ez esateagatik) meatzeetan adingabeak egotea. Zoritxarrez, beraien adina eta familiaren mendetasuna kontuan hartuz, eskulan merkea bilatzen dutenen helburu errazak dira, Rubayako hirira sartzeko baztertuen esparruetan gertatzen den moduan.

Hala ere, ikerketa honetan zehar zenbait meatze-azarpenetara egindako elkarriketa eta ustekabe-ko bisiten arabera, ume kopurua nabarmen jaitsi da meatzeetan. Hala ere, oso zaila izan da guretzat eguneratuta dauden estatistikak aurkitzea. Ume

kopuruaren jaitziera horren arrazoia trazabilitate ekimenen eskaerak betetzeko meatze-operadoreen kontzientziazio handiagoa izango litzateke, baina baita alerta azkarreko erakundeek, hala nola ASSODIP, CSAC eta abarrek eremura egindako bisita erregularrak ere.


4.3.3. Emakumeen ekintzailtza

Emakumeen ekiteko gaitasuna sustatzeko proiektuen proportzioa oso txikia da. Zenbait erakundek (hala nola ASSODIP edo ETN) ekimenak abian jarri dituzte ildo honetan Rubayako hirian, eta barne hartzen dituzte prestakuntzak alfabetatzean, ebaketa eta jantzigintzan eta sukaldaritzako eskolak. Meatzaritzaren esparruan ASSODIPek familia elkartzeko eta sentsibilizazio proiektuak egiten ditu, harrobietan adingabeen kopurua murrizteko, eta lanbide heziketako programak Solidaritate Mutuen bidez gazteen onurarako. Bestalde, SOPROP erakundeek giza eskubideei buruzko prestakuntzak ematen dituzte emakumetaldeentzat.

4. taula: Emakumeen trazabilitate-sistemari buruzko balorazioa

Zk.	Balorazioa	Erantzun kop.
1	Bikaina	0
2	Oso ona	0
3	Ona	2
4	Nahiko ona	7
5	Txarra	28
	Guztira	37

1. grafikoa. Emakumeen trazabilitate-sistemari buruzko balorazioa



Emakumeen iritzia gehienbat negatiboa da, beraien ustez, trazabilitate-sistema mineralen prezioan aplikatzen den beste zerga bat delako. Elkarrizketatutako 37 emakumeetatik 2k bakarrik uste dute mineralen etiketatzea eta ziurtatzea neurri ona dela; beste 28rentzat txarra da. Hala ere, badirudi hori gertatzen dela meatzeetako emakumeek trazabilitate-sistemen funtzionamenduari buruzko informazio falta larria dutelako: ez dituzte ezagutzen mineralaren prezioak ezartzen dituzten mekanismoak eta diru-sarrera baxuak azaltzen dituzten azpiko arrazoiak.

4.3.4. Prostituzioa Rubayako hirian

Prostituzioa ia endemikoa da meatze-eremuetan eta Rubayako hiria ez da salbuespena. Koltanaren *boomak* eta irabazi errazek (batik bat «eramaile-entzat») eragindako hazkunde demografikoarekin, ondorioa familiak desintegratzea eta ohiturak gaiztotzea da. «Prostituzioa izugarri handitu da hirian. Batez ere [mineralen] merkatariek oso gustukoak dituzten adingabeak dira»²⁴, esan zizgun konfiantzaz Rubayako adingabeak babesteko polizia-ofizial batek. Eskola-uztea larriagoa da nesken artean. «Hamabi urteko neska batzuek ez dute zalantzarik beren gorputza emateko, gaueko bost dolar baino gutxiagoren truke»²⁵, gaineratu zuen ofizialak.

5. Ondorioak

- ▶ Rubayako mineralen hornidura-katea arriskuan dago, eta berehalako bahiketa bat izateko arriskua ere badu bere eragile nagusiak lankidetzakordioaren txostena benetan aplikatzeaz ez badira arduratzen. Iruzur antolatu eta iraunkorrarekin amaitu behar dute.
- ▶ Rubayako eta hango meatze-ustiapenen iraunkortasunak ingurumen-arrisku larriak ditu, deforestazio basatiarengatik eta kutsadura esponentzialarengatik. Meatze-kontzesioen ingurumen-eraginaren azterketak, baldin badaude, paperean bakarrik daude. Ez dute ondorio praktikorik.
- ▶ Emakumeen partaidetza Rubayako balio-katean marjinala izaten jarraitzen du; edozein planek, bai tokiko garapen-planek bai ingurumen-eragina arintzeko planek, emakumea kontuan hartu beharko dute.
- ▶ “Basket Fund” funtsa edo tokiko garapen-funtsa ez da gardentasunez kudeatzen eta ez da arrazionaltasunez esleitzen.

²⁴ Adingabeak babesteko polizia-ofizial batekin egindako elkarrizketa Rubayan, 2016ko ekainean.

²⁵ Adingabeak babesteko polizia-ofizial batekin egindako elkarrizketa Rubayan, 2016ko ekainean.

6. Gomendioak

Iparraldeko Kivuko probintziako gobernuari

- ▶ Gobernu probintzialak premiaz esku hartu behar du lankidetzak-akordioaren txostenaren alderdien artean, hots, SMB eta COOPERAMMA artean nagusitzen den konfiantza-krisiarekin amaitzeko, Rubayako koltanaren iruzur antolatua eta iraunkorrak eragindako zerga-itzurpenaren hedapena eteteko.
- ▶ Probintziako meatze-ustiapenetik ateratzen diren zergen ondorioak nabaritzen direnez, meatze-eremuetako bide-azpiegituretan tokiko garapen-funtsa kudeatzeko eta esleitzeko sistemak gardena izan beharko luke. Horrez gain, tokiko erkidegoak eta Rubayako edo beste edozein meatze-ekoizpeneko eremutako gizarte zibila barne hartu beharko lituzke. Funtsaren esleipena tokiko garapen-plana jaso behar da, tokiko erkidegoek proiektuak beregana ditzaten.
- ▶ Tokiko garapen-funtsak sail bat bideratu beharko luke emakumeak mineralen hornidurakatean dituen eskubideak sustatzeko.

SMB enpresari

- ▶ Ingurumen-eraginaren azterlana argitaratzea eta martxan jartzen hasia gomendatzen dugu, betiere emakumearen partaidetza eta meatze-eremuetako berariazko beharrak kontuan hartuz. Horretarako, SMBk tokiko erkidegoen inplikazio handiaren aldeko apustua egin behar du, ingurumen-eraginak arintzeko plana abian jartzeko.
- ▶ Premiazkoa da SMBk hornitzen dizkieten zamen ordainketa-prozesua arintzea, merkatarien kexekin amaitzeko, izan ere, ordainketak jasotzeko hilabeteak itxaron behar dituztela diote.

COOPERAMMARI

- ▶ COOPERAMMA artisau-meatzari ustiatzaileen benetako kooperatiba bihurtu behar da, bere sortzaileak aberasteko lorbidia izan ordez. Horretarako, kide "laguntzaileen" benetako partaidetza bermatzen duen berregituraketa bat egin behar du. Horrez gain, proiektuaz jabetu behar da.





- ▶ COOPERAMMAk Rubayako koltanaren iruzurraren eta kontrabando antolatua kontrako borrokan lagundu eta parte hartu behar du. COOPERAMMAk beherantz berrikusi behar ditu "kide laguntzaileak" (harginak) zergapetzen dituen zergak.
- ▶ COOPERAMMAk, Masisiko artisau-meataritzaren eragile nagusi gisa, ingurumen-arriskuak kudeatzeko plan bat izan behar du. Azken horrek, SMBrekin bat egin behar du, eta tokiko garapen-plan baten barruan sartu behar da bere gauzatzea.

ANEMNKIRI

Merkatariak iruzurraren eragile nagusi gisa eta Rubayako koltanaren kontrabando antolatua aipatzen direnez, eta horietako askok, bere mineralen zamak SMBri berriro ez diotela hornituko zin egin dutenez, ANEMNKIRI dagokio bere kideak legezatasunera itzul daitezen kontzientziatzea. ANEMNKIK COOPERAMMA, SMB eta agintari judizialekin jardun behar du guztiz, mafia-sareak maila handietara heldu direlako Rubayako eta haren inguruko mineralen balio-katean.

Gizarte zibilari

- ▶ Agintari nazionalekin eta nazioartekoekin, Nazio Batuen Segurtasun Batzordearekin, Afrikako Batasunarekin, Europar Batasunarekin eta Estatu Batuetako Estatu Sailarekin lankidetzan aritzea,

Kongoko Errepublikako Demokratikoko ekialdeko mineralen iruzurraren eta kontrabandoaren eragile nagusiek zehapenak jaso dituztelako.

- ▶ Gizarte zibilak proaktiboa izan behar du bazkideen bilaketan, tokiko garapen-plan bat egiteko finantzazioa lortzeko, SMB, COOPERAMMA eta bertako agintariekin elkarlanean arituz abian jar dezaten.
- ▶ Lankidetzeta bat ezarri behar du sektore publiko eta pribatuekin, azken honek gizarte eta ingurumen erantzukizunarekin konpromisoak mantentzen dituzan baliabide naturalen ustiapenean.
- ▶ COOPERAMMAren eta bertako erakundeentzako antolaketa eta finantza kudeaketako gaitasunen garapenean laguntzea.
- ▶ Meatze-eremuetan aurrezpen eta kreditu kooperatibak edota herri bankak sortzearen alde egitea.
- ▶ Emakume elkarteak sortzen laguntzea, meatze-sektorean bereziki eta natura-baliabideetan oro har.

Nazioarteko erkidegoari

Meatzeen ordezkari proiektuen aldeko gizarte zibilaren ekimenei laguntzea, eta bertako eta emakumeen kooperatiba eta erakundeek ere laguntzea meatze-ustiapeneko eremuetan.

I. Eranskina. Indarreko trazabilitate ziurtagiriak

1. taula. Mineralen trazabilitaterako eskualdeko eta nazioarteko ekimenak

Ekimena	Erakunde sustatzailea	Mineralak
Certified Trading Chains (Ziurtatutako Hornidura Kateak)	BGR (German Geological Survey) Ruandarekin, KED eta Burundirekin lankidetzan	3T (Tantalioa, Eztainua, Wolframioa)
Conflict Free Gold Standard (Gatazkarik Gabeko Urrerako araua)	“World Gold Council” (Urrearen Munduko Batzordea)	Urrea
Conflict Free Smelter Program (Gatazkarik Gabeko Galdaketa Programa)	EICC/GeSI	3TG
Conflict Free Tin Initiative (Gatazkarik Gabeko Eztainurako Ekimena)	Holandako gobernua, sektore pribatua	Eztainua (Hornidura- kate itxia)
ICGLR Regional Certification Mechanism (ICGLRren Eskualdeko Ziurtatze Mekanismoa)	Aintzira Handien Eskualdeari buruzko Nazioarteko Konferentzia, GIZ (Alemaniako garapenerako lankidetzan)	3T (koltana, eztainua, wolframioa)
ITRI Tin Supply Chain Initiative (iTSCi) (ITRIren eztainuaren hornidura-kateari buruzko ekimena)	International Tin Research Institute (Eztainuari buruzko ikerketen nazioarteko erakundea), Tantalum-Niobium Study Centre (Tantalioari eta niobiori buruzko ikerketen erakundea)	3T
OECD Due Diligence Guidance (ELGAren Nahitaezko Eginbidearen Gida)	ELGA	3TG
Public-Private Alliance for Responsible Minerals Trade (Mineralen Merkataritza Arduratsurako aliantza publiko-pribatua)	Enpresa munduko eragileak, publikoa (US DoS) eta gizarte zibilekoak	3TG
Responsible Gold Guidance (Erantzukizuneko zuzentzarauak urrearen arloan)	London Bullion Market Association (Londresko Metal Preziatuen Merkatuko Elkartea)	Urrea
Responsible Sourcing Guidance (Eskuratze Arduratsurako Zuzentzarauak)	Dubai Multi Commodity Center (Dubaiako Merkataritza Zentroa)	3TG
RJC Code of Practices, Chain of Custody Standards (RCJ-Jardunbideen kodea eta zaintza katea)	Responsible Jewelry Council (Bitxigintza Arduratsuko Batzordea)	Urrea
Solutions for Hope (Itxaropenerako Irtenbideak)	Motorola, AVX, etab.	Tantalioa (Hornidura- kate itxia)



“Kongoko emakumeak seriooki aintzat hartu behar dira, guztiok luzaroan amets egin dugun Kongoko Errepublika Demokratikoak etorkizun baketsua izan dezan. Horren zait bat gure esku dago”

Justine Masika

Synergie des Femmes pour les Victimes des Violences Sexuelles (SFVS)ko koordinatzailea

Ikerketa honek gatazkarik gabeko teknologiaren kapainian kokatzen da:

www.gatazkarikgabekoteknologia.org

SFVS-ekin dugun elkarlanaren gaineko informazio gehiago izateko, jo ondorengora:

www.alboan.org

